

JAUNA, EZ EGIN GEIAGO EMAKUMERIK

Izenburu au dakar Indiako lurraldean argitaratzen dan "Gujerat" aldizkariak. Onan diño:

"Jaungoiko maitea:

Indiako emakumeei zer jazoten jakun esatera natorkizu. Zuk ulertuko dozula ba dakit, baiña lur onetako jendeak ez dot uste.

Gure amak ixilean euki gura izan dau... Baiña gure ama ume bat mundura ekarteko zorian egoala jakin dot. Geixoetxe batera eroan eben. Eta an ume jaio barria neskea zala ikusi ebenean, osagilleak bizi kendu eutsan, eta ilda jaio zan.

Eta zergaitik ori? Nire aizta txikiak ez ete aukun mundu au, bere lora eta izartxo politaki, zein ederra dan ikus-teko eskubiderik?

Mundu onetan txarkeri asko egiten dala, uste dot.

Shila, nire neska lagun txikia, lengo egunean geixotu egin zan, eta ez eutsuen osagileari etorteko esan. Bere ama umea oean itxita, lanera joan zan, eta andik etxerakoan Shila ilda egoan.

Zuk uste dozu, Jauna, ni geixotzen nazanean, Shila lez, ni ere ilten itxiko nabela?

Lengo egunean gure aitak nire nebeari, mutilla zalako, soiñeko barri bat ekarri eutsan, baita liburuak, oiñetakoak eta pelota bat ere. Baiña niri, andiagoa izan arren, ez eustan ezer ekarri.

Nire soiñekoak zarrak dira, eta oiñetako barik, ortozik nabil, eta eskolara joan bearrean etxeko lanak egin bear dodaz: goizean goiz jagi, nire nebeari gosaria prestat, gero etxea txukundu, eta abar.

Zergaitik, Jauna, nire nebeari orrenbeste gauza, eta niretzat ezer ez? Itaun au egin neutsan aitari, eta onek erantzun eustan: nesken eginbearra ez da jolastea, etxeko lanak egitea baiño. Eta gero esan eustan: laster amar urte beteko dozuz, eta lantegira joan bearko dozu...

Laster afaltzeko ordua da. Gure amak "kurry" arroza egin dau aitarentzat eta nebearentzat. Lenengo gizonetzko biak jango dabe, eta gero amak eta biok sobra dana jan bearko dogu, eta ez da asko izango.

Orain, Jauna, beste gauza bat esan bear deustu.

Atzo gure aita eta ama, euren artean, ixilpean, berbaz ikusi nebazan. Zergaitik alan ezkutuan? Ai, Jauna, nik ba dakit! Nire ezkontzari buruz ziarduen. Baiña nik amar urte bakarrik dodaz! Baiña alan da oitura, eta nik zer egin neike?

Orain beste gauzatxo bat ere kontatuko deustut, Jauna. Ba dakizu nire neska lagun bati beste egunean zer jaso jakon?

Landan egoan auntsak zaintzen, eta iru gizon etorri jakozan, eta lotuta basora eroan eben... Arratsaldean etxera etorri zan, negar baten, beste "sari" soiñekoa urratuta... Eta gaiñera bere aitak jo egin eban, esanaz: orain nor ezkonduko da zugaz?

Jaungoiko maitea,

begira Indiako emakumeak zelan bizi garean. Ain txar-to bizi bear badogu, Jauna ez egin geiago emakumerik.

Goikoetxea'tar Iñaki

Otoak bildurtzen nau,
aragiak dardara,
pisti usaiñean.
Mendi bakardadean,
arnas bagerik nago
etsai bildurpean.

Pistikeriaren kateiak.

Leioa orroaka
arkaitzaren zulotik
papar dardaretan.
Ai! nere oiñ miña!
Iruñtzen jatorkit
ene esturetaren.

Aberezko kateiak.

Diruzalekeriak
uegerrez il nai ditu
gizonen biotzak;
laguna geiago da
urre ugerrak baiño,
gizonkeri utsak

Diruaren kateiak

Ondasunezko garra...
Urreak dizdizetan
lotu dau biotza;
-bizi gaieo gogorraz-
il dautso odol dana
metalaren otsak.

Metalaren kateiak.

Zapalkerizko itza,
ez leuke bizi bear
gogorkeri latzak;
zerk daroa gizona
kirtekerietara,
saminduz biotzak...?

Zapalkerizko kateiak

Onduamuaaren griña,
Lurra ondatzen zabiltz
gizon biotzetan;
noz, asetuko zara,
doillorkeri baltz ori,
kaskarkerietan...

Ondamusko kateiak